

MOMIETATIK DENA APROBETXATZEN DA



**Nagore Irazustabarrena
Uranga**

@irazuabarrena

Erromatar Inperioa, K.o. I. mendea. Plinio Zaharrak (23-79) jaso zuenez, betuna sendagai gisa erabiltzen zen: zauriak eta azaleko gaixotasunak sendatzeko, hagineta mina arintzeko edo, ardoarekin nahastuta, beherakoa eteteko. Greziarrek ere erabiltzen zuten; *asphaltos* esaten zioten. Persiarrek, aldiz, *mumia* deitzen zioten eta hortik dator "momia" hitza. Izan ere, egiptoarrek betun modukoak eta erretxinak erabiltzen zituzten gorpuak kontserbatzeko.

Antzinaroan, substantzia organikoen nahasketa beltza lortzeko iturri bakarra zuten: Itsaso Hilaren inguruko biltegi naturalak. Baina Egiptoko momia zaharrak aurkitu zituztenean substantzia beltz likatsuz estalita zeudela konturatu ziren, erretxinak denboraz belztu egiten baitziren. Ustez, sendagai mirakulutsuaren iturri alternatiboa topatu zuten. XII. mendetik aurrera, substantziaren izen persiarra gorpu osoa izendatzeko erabiltzen hasi zen, eta betunaren ahalmenak ere momia osoari egotzi zizkioten. Sinesmen horri merkatarien marketina gehituta, Erdi Aroan momiak salgai gutiziatu bihurtu ziren. Milaka momia eraman zituzten Europara, han birrindu eta hauts moduan saltzeko. Hauts hartzen zuenak momien botere misteriozua lortuko zuten.




Margaret Murray egiptologoa, momiarri bendak kentzeko prozesua azaltzen 500 ikusleren aurrean, Manchesterren, 1908an.

Momiak lortzea geroz eta zailagoa zenez, prezioek izugarri egin zuten gora. Zenbait oportunistak momiak ekoizten hasi ziren orduan: inork nahi ez zituen gorpuei betuna ematen zieten eta eguzkitan lehortzen uzten zituzten momia-hautsa lortzeko. Europar XVIII. mendera arte kontsumitu zuten plazebo garestia.

XIX. mendean gizarte viktoriarreko eliteek beste erabilera bat eman zieten gorpu baltsamatuei: momiak biluzteko festak antolatzen zituzten. Ikuskizun batzuk etxeetan egiten zituzten, jende gutxiarekin; beste batzuk antzokietan, eta sarrerak berehala agortzen ziren.

1908an Margaret Murray egiptologoa Nekht-ankh eta Khnumu-Nekht anaien momiei bendak kendu zizkien eta gorpuak aztertu zituen 500 pertsonaren aurrean. Momiak magikoa ez zirela erakutsi nahi zuten, misteriorik gabeko gorpu arruntak zirela.

XVI. mendetik aurrera, momia-hautsa pigmentuak egiteko ere erabili izan zen. Edward Burne-Jones (1833-1898) margolari ingelesak momia-marroia izeneko pinturaren osagai nagusiaren berri jakin zuenean, estudioan zeuzkan kolore horren flasko guztiak hartu eta duintasunez ehortzi zituen, profanatutako arrastoek, azkenean, atsedan har zezaten. ■



ALEF

Kriogeniak mende erdi bete du

1960ko hamarkadaren erdialdean gorpuak kriogenizatzeke alferrikako hainbat saiakera egin zituen Alcor fundazioak. Azkenik, 1967ko urtarrilaren 12an, James Bedford izeneko Los Angelesko psikologia irakaslea minbiziak jota hil zen 73 urte zituela, eta haren gorpua kriogenizatuta kontserbatzea lortu zuten lehenengoz. Agente krio-

babesleak eta dimetilsulfoxido izeneko substantzia injektatu zizkioten Bedfordi. Egun, Alcorrek Arizonako basamortuan duen egoitzan dago haren hilotza, kontserbazio kapsula batean sartuta, orduz geroztik izoztutako beste 147 gorpuekin batera. Eta, usteak uste, Walt Disneyren gorpua ez dago 148 horien artean. ■